

URTEZ URTE INDARTZEN DOAN BIDEA

Krisiak krisi, Larre-Gain sagardotegiak sagardoa prest du upeletan, sagardotegira joaten direnek edateko prest.

Hamar urtetik gora dira Larre-Gain sagardotegiak beren etxea jendearekin ireki ziotenetik. 1995. urtean ireki zuten sagardotegia, eta ordutik urtero-urtero bisi-tari ugari izan dituzte sagardoa dastatzeko.

Larre-Gainen betidanik egin izan dute sagardoa, eta sagardotegia ireki aurretik sagardoa botiletan ere saltzen zuten. Baina diru iturri gehiago lortzeko asmoz, sagardotegia irekitzeko pausoa eman zuten. «Hemen betidanik egin dugu sagardoa, baina sagardotegia irekitzeko pausoa 1995ean eman genuen», esan du Joxe Lasartek, sagardotegiko nagusiak.

Sagardotegia ireki aurretik zituzten helburuak beteak dituzte, eta gaur egun «martxa onean» doa sagardotegia. «Orokorrean oso ondo joan zaigu sagardotegia. Hasieran kosta egin zen, baina dagoeneko martxa hartuta dugu», dio Lasartek. Kosta zitzaien sagardotegia irekitzeko pausoa ematea, ordea: «Orain dela 20 urte legeztatu genuen txotxa irekitzeko, baina urte batzuk geroago ireki genuen jendearentzat».

Sagardotegia bera irekitzea apustu handia izan zen: «Guk inoiz

ez genuen jendearekin lan egin; sagardoa botiletan saltzen genuen, baina ez genuen ohituta jendea gura etortzen; eta ordura arte jendearekin horrela lan egin gabe-koak ginen», Joxe Lasarteren hitzetan.

Baina sagardotegia jarri zutenetik beste apustu handi bat ere egin behar izan zuten: sagardotegia berritzea. «2000. urtean berritu genuen sagardotegia. Ordura arte bost urteko eskarmentua genuen jada, eta gure sagardotegian berrikuntzak egin behar zirela uste genuen, eta egin egin genituen».

Sagardo garaian, igande iluntzetan eta asteleheneetan soilik izaten dute Larre-Gain. «Asteazkenak soilik ematen ditugu, eta asteburuetan bazkari eta afaria», dio nagusiak.

Beraz, aste osoan izaten dira bisitariak Larre-Gainen. Dagoeneko urtarileko asteburuetarako badituzte erreserba batzuk eginak. «Normalean, asteburuetarako izaten dira erreserba gehienak. Badaezpada erreserbatuta hobe da. Asteazkenetan, jende gutxiago ibiltzen da normalean, eta erreserbak ere gutxiago izaten dira».

Produkzio txikia

Larre-Gain sagardotegiak sagardo produkzio txikia du, 50.000 litro egiten ditu gutxi gorabehera. Beste hainbat sagardotegirekin konparatuz, produkzio txikia ei da hori.

Denetarikoa jendea joan ohi da sagardotegietara, gazteak eta ez hain gazteak, hemengoak eta kanpokoak. Larre-Gainen ere horrela izaten da. «Guk baditugu bezero finkoak, betikoak, eta horiek beti



SAGARDOTEGIA. Larre-Gain sagardotegia eta upelak. LARRE-GAIN

etortzen dira; eta gero, bestelako jendea ere etortzen da», esan du Joxe Lasartek.

Aurten badute txotx garaia hasi aurretik beste kezka bat: krisia. Leku guztietan entzuten da krisi hitza, eta gero eta gehiago sumatzen dira eraginak.

«Ea oraingo krisi honek gehiegi ez digun eragiten. Gure kezkak lehenengo sagarrak izaten dira, gero ea sagardoaren martxa ondo doan... eta aurten, txotx garaia hasi aurretik, krisia da gure kezka».

Beti izango da kezka bezeroa jo-

ango den edo ez, baina gaur egun edonor beldurtzen du krisi hitzak.

Beraz, sagardoa prest dela, «une politean» hasiko da garaia, Joxe Lasartek esan duenez. Orain bezeroak sagardotegira joatea besterik ez zaie falta Larre-Gain eta gainontzeko sagardotegiei.

«Aurten, txotx garaia hasi aurretik, krisia da gure kezka; ea oraingo krisi honek gehiegi ez digun eragiten»

JOXE LASARTE
Larre-Gain sagardotegiko arduraduna

TOLARE SAGARDOTEGIA

www.iparragirre.com
Osinaga auzoa Hernani
Asteazkenetik larunbatera gauzez irekita eta larunbat eta igande eguerdian ere bai.

ARAIA

SAGARDOTEGIA

Tel.: 945 30 47 63 - 607 30 95 21
Santsaerreka 26 - K.P.: 01250 ARAIA (ARABA)